



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALAK 2008KO URRIAREN 23AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

#### **Alkatea:**

*Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*

#### **Zinegotziak:**

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna  
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea  
Beñat Erezuma Arisketa  
Jasone Bernaola Aurrekoetxea  
Roman Etxeandia Zabala*

#### **Idazkaria:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2008ko urriaren 23an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

### **1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-**

2008ko abuztuaren 19an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

### **2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-**

- **Abuztuaren 13ko 2008/73 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartuz, Gernika-Lumoko Polikiroldegiko zuzendariak egindako ziurtagiriak aintzat hartuta.
- **Abuztuaren 13ko 2008/74 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F.k egindako eskaera onartu eta 2008ko polikiroldegiko kuotaren familia ugarientzako laguntza ematea.



**Ajangizko Udala**

- **Abuztuaren 13ko 2008/75 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, P.I.R.eri, Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta erroldagabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura.
- **Abuztuaren 13ko 2008/76 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, E.R.G.eri, M.B.R.en Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta erroldagabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura
- **Abuztuaren 13ko 2008/77 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, J.L.G.ri Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta erroldagabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura
- **Abuztuaren 25eko 2008/78 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2008ko etxez-etxeko laguntzarako 3/2008 espedientea onartzea, astean hiru egunez (astelehena, asteazkena eta ostirala) eguneko ordu beteko laguntza onartuz 2008ko abuztuaren 27tik aurrera.
- **Irailaren 17ko 2008/79 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika Lumoko San Fidel Ikastolak urriaren 3rako antolatu duen txangorako Herriko Plaza eta Udaletxeko entxufe bat erabiltzeko baimena ematea.
- **Irailaren 17ko 2008/80 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** P.J.I.ri, Kanpantxuko Lezamene baserriko fatxadak margotzeko aldamiaoa jartzeko baimena ematea.
- **Irailaren 18ko 2008/81 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S. Koop.en izen eta ordezkari Juan Luis Astoreka jaunak aurkeztutako eskaera onartu eta Maier S.Koop. enpresari biltegian egindako lanak legezztatzea eta mueile berri bi egiteko baimena ematea.
- **Irailaren 18ko 2008/82 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Koop.en izen eta ordezkari Jose Ramón San Sebastian jaunak aurkeztutako eskaera onartu eta Maier S.Koop. enpresari Margolatxu guneko bulegoak zabaldu eta eraberritzeko baimena ematea.
- **Irailaren 18ko 2008/83 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko etxez-etxeko laguntzailari 2008ko irailaren 22tik 26ra oporrak, 29 eta 30 egunak norberaren arazoetarako egunak eta urriaren 1,2 eta 3 norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimen egunak onartzea, azken kasu honetan Udaltzuek araututakoa kontutan hartuta, gutxienezko zazpi egun natural kontsumatu dituela ulertuz.
- **Irailaren 19ko 2008/84 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** O.E.I.eri Mendieta auzoko 25 etxeko ageak sendotzeko lanetarako baimena ematea.



*Ajangizko Udala*

- **Irailaren 22ko 2008/85 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Torre Ibinarriaga baserria eta bere jabetzapeko lurren segregazio onarpena.
- **Irailaren 23ko 2008/86 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** IBERDROLA S.A. enpresari 13,2 Kvk STR Gernika-Arbazegi Zto. 6 lurpeko linea eta dagoen "Gezuraga" 6556 Zbk. T.A. berria eta "Gezuraga" 200600180 Zbk. T.Z.ren zatikapena Ajangizko udalerrian instalatzeko baimena ematea eta burutuzeko proiektuaren onartzea.
- **Irailaren 25eko 2008/86 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F.k egindako eskaera onartu eta 2008ko ibilgailuen gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea
- **Irailaren 30eko 2008/87 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko 3. Hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.
- **Irailaren 30eko 2008/88 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier S.Coop.ek 2008/36 Alkate Dekretuz onartutako Maier S.Coop. industria hiri lurreko urbanizazio proiektua beteko dela bermatzeko aurkeztutako Euskadiko Kutxako 2008ko irailaren 9ko 2008058805 zenbakidun 300.000,00 euroko bermea onartzea eta ondorioz 2000ko uztailaren 3ko 2000026846 bermea itzultzea.
- **Urriaren 3ko 2008/89 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Justo Uriarte Goicelaya jaunari, Urretxa baserri barruan komuna konpontzeko lanetarako baimena ematea.
- **Urriaren 3ko 90/2008 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA.-** 2008ko aurrekontuko kreditu aldaketarako espedientearen hasiera.
- **Urriaren 6ko 2008/91 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA.-** 2008ko irailaren 10eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Irisgarritasun-planak egiteko, hobekuntza-obrak burutzeko eta hiriingurunean zein eraikinetan Irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak erosteko udalenzako, toki erakunde txikientzako eta irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzetarako deialdia egin eta horiek arautzen dituen, eta diru-laguntzen eskabide hori noiz eta non aurkeztu behar den ere zehazten duen 2008ko uztailaren 17ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduan oinarrituta, Mendietako plazako eskailerak, Herriko Tabernarako sarrera, Kanpantxuko frontoirako sarrera eta Kanposanturako bidea egokitzeko lanetarako dirulaguntza eskatzea, guztira 26.464,50 euroko aurrekontua aurkeztuz.
- **Urriaren 8ko 2008/92 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.E.A.k, 2007ko urriaren 3an aurkeztutako idatziren bidez egindako eskabidea ezeztatu U.E. Burutzapen



*Ajangizko Udala*

Unidadean eraikitako 24 etxebizitzan esleidenen artean, pleguren arabera, ezin bai daiteke inolako elkar trukeketarik izan.

- **Urriaren 10eko 2008/93 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Justo Uriarte Goiricelaya jaunari, aurkeztutako eskaeraren arabera, Ajangizko Kanpantxu auzoko Urretxa baserrian hiru leiho aldatzeko lanetarako baimena ematea.

### **3.- HERRIKO TABERNAKO ALOKAIUAREN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2008ko abuztuaren 19an ospatutako Osoko Bilkuran, Herriko Tabernaren alokairua leihaketa bidez esleitzeko baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak jasotzen dituen agiria onartu zuen.

Erabaki hau 2008ko irailaren 4ko 169 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, proposamenak aurkezteko epea zabalduz. Kontratuaren baldintzen artean, Udalari urtean ordaindu beharreko errentaren kopurua gutxienez bost mila laurehun eta hogeita hemeretzi euro (5.439,00 €) gehi dagokion BEZ kopurua izan behar zuela jartzen zen.

Epe honetan proposamen bakarra aurkeztu da Udalari ordaindu beharreko errentaren kopurua urteko 3.103,45 euro gehi dagokion BEZa eskainiz.

Idazkariak 2008ko urriaren 15ean egindako txostenaren arabera, prozedura bertan behera geratu eta publikazio berri bat egin beharko litzateke prezio kopuru berria onartuz.

Herriko Tabernaren helburu nagusia herritarrei gizarte zerbitzu bat eskaintzea dela kontutan hartuta eta Taberna itxi beharrak herrirako ekarriko lukeen kaltea kontutan hartuta, esleipen honen urjentzian oinarrituta, Alkateak Udalari honako erabaki hau hartu dezala proposatzen dio:

**Lehenengo.-** Herriko Tabernako alokairua Karmelo Crespo eta Idoia Magunagoikoetxea jaun-andreei esleitzea, abuztuaren 19an onartutako agirian zehaztutako baldintzapean.

Errenta kopuruari dagokionez, honako hau aplikatzea:

- 2008 urterako: 488,79 euro/hileko (BEZ barne)
- 2009 urtean: 300,00 euro/hileko (BEZ barne)

Hurrengo urteetan errentaren berrikusketa egingo da aurreko ariketako INEK onartutako KPIaren arabera. Lehenengo berrikusketa 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera burutuko da.

**Bigarren.-** Erabaki honen berri interesdunei ematea, jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.



*Ajangizko Udala*

Proposamena aurkeztuta, Udal Osoko bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez onartzen du.

#### **4.- EUSKAL TOKI-ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO ETA LANGILEEN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN UDALHITZ 2008-2010 AKORDIOA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELeK sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezten.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia kontuan, Ajangizko Udal Osoko Bilkurak bertaratutako zinegotzien aho batez, honako akordioak hartu ditu:

**LEHENENGO.-** Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkarien artean.

**BIGARREN.-** Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.



Ajangizko Udala

## **5.- GIZARTE ETA KULTURA GAIETARAKO EPE LABURRERAKO DINAMIZATZAILE PLAZA BETETZEKO DEIALDIEAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Alkate Udalburuak aditzera ematen duenez, Kultur Etxerako lanak bukatuta, 2008 urte honetan ekipamenduak jartzeari ekin zaio. Beheko solairuan orotariko gela, ofizina eta gurasoek daramaten ludoteka jarri da. Goian berriz KZ gunea, liburutegia, musika eta ingeleserako gela... eta goian artxiboa eta beste gela batzuk antolatu dira, besteak beste yogarako gela.

Gaur egun euskal dantzak, ingelesa, musika, yoga... ikastaroak eskaintzen dira, guraso batzuk kultura zinegotziarekin batera elkarlanean.

Kultur Etxeko eskaintza kontutan ahartuta eta erabilera eta mantenimendua koordinatu ahal izateko baina, gizarte eta kultura gaietarako dinamizatzaile bat kontratatzeke proposamena luzatzen da, kultura batzordea, guraso eta beste erabiltzaile eta udalaren arteko lotura eraman dezan. Printzipioz astean hamazortzi orduko sei hilabeterako zerbitzu kontratua burutzeko asmoa dago, beste sei hilabetez luzatu daitekeena, bitartean plaza ateratzeko pausuak ematen joan ahal izateko.

Idazkariak egindako txostenaren arabera, aurkeztutako kontratua zerbitzu kontratu txiki modura sailkatu daiteke, eta ondorioz gastua onartu eta dagokion faktura onartzea besterik ez litzateke behar. Halere ahalik eta partaidetzarik zabalena lortu ahal izateko, Udalak deialdia zabaltzea proposatzen du, ondoren azaltzen den deialdiaren arabera:

### **KULTUR ETXEA**

#### **1.- DEIALDIAREN XEDEA**

Gizarte eta kultura gaietarako dinamizatzailea zerbitzua kontratatzeke deialdia.

- a) plaza kopurua: bat (1) Lanpostu honetara pertsonalki aurkeztu beharko da.
- b) Kontratazioa sei (6) hilabeterako izango da eta gehienez urte betearaino luzatu ahal izango da. Arratsaldeko ordutegia izango du, astean hamazortzi (18) orduz.
  - Kontratu mota: Zerbitzu kontratua
  - Kontratuaren prezioa: 10.200 € BEZ barne.
  - Ordainketa: Ordainketa hilabetea egingo da, aurretik dagokion faktura aurkeztuta.

#### **2.- FUNTZIOAK**

- Ajangizko Udalean garatutako kultur eta gazte jardueretarako eta udalaren kultur eta gazte programaziorako aholkularitza emotea, haiek bultzatzea eta hareetarako laguntza emotea, teknikoki.
- Kultur, gazte eta kirol alkarte eta taldeentzako udal lokalak zuzendu eta kontrolatzea
- Gazte eta kultur jarduera orokorren eta eskola-umeentzako, helduentzako eta zaharrentzako jarduera zehatzen programazioa eta jarraipena egitea Kultura



*Ajangizko Udala*

batzordearekin batera.

- Udalerriko kultur eta kirol alkarte eta taldeak koordinatu eta hareei laguntzea. Udaleko eta udalez kanpoko sektoreen arteko hartu emonak.
- Kultur eta gazte egitarauak behar den aldizkotasunagaz prestatzea, kudeatzea eta zuzentzea, urtean zehar sortzen diran egitarau berezietz ganera.
- Kultur batzordean parte hartzea
- Beste administrazio batzuk hartu-emonetan imintea eta lanpostuari datxekiozan funtzinoakaz zuzenean lotuta dagozan bileretara joatea.
- Liburutegiko ardurak eta lanak
- Kultur Etxeko instalazioen eguneko garbiketaz arduratzea, gelak txukun eta garbi mantentzeko ardura, landareei ura botatzea...
- Udaletxeko ordezkariekin hamabostero gutxienez elkartzea.

### **3.- EPAIMAHAIA**

- Presidentea: Alkatea
- Mahaikideak:
  - Udaleko zinegotzi bi (bat Kultura arloko arduraduna)
  - kultura batzordeko 2 kide
  - Idazkari lanak: Udaleko langile bat

### **4.- BALDINTZA ETA BETEBEHARRAK**

- Unibertsitatean diplomatua edo karrerako azken urtean egotea.
- Euskararen 3. HE izatea

### **5.- IRIZPIDEAK**

A.-

- Aisialdirako animatzailea lanetan aritua izatea. 5 puntu.
- Aisialdirako zuzendari lanetan aritua izatea. 7 puntu.
- Kultur etxeetako dinamizazio lanetan aritua izatea. 10 puntu.
- Gazte planetan edota gazte taldeetan dinamizazio lanetan aritua izatea. 7 puntu.
- Ajangizko udalerriko ezagutza soziokulturala izatea. 10 puntu.
- Liburutegi lanetan aritua izatea. 5 puntu.
- Liburutegietako informatika programen ezagutza eta kudeaketa. 5 puntu.

B.- PROIEKTUA: Urte beterako plana aurkeztea herriko gizakultur ezagutza abiapuntu izanik. 30 puntu.

C.- Elkarrizketa: parte hartzaileak aurkeztutako proiektuaren azalpena egingo du.

### **6.- DOKUMENTAZIOA**

- NAN edo bestelako nortasun agiriaren fotokopia
- Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioaren fotokopia



*Ajangizko Udala*

- Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna lortu dauela eta bere esku dagoela kreditatzen duen agiriaren fotokopia
- Lehiaketan baloratzerakok diren merezimenduei buruzko datuan fotokopia konpultsatua

#### **7.- EPEA**

Eskaintzak Udaletxean 2008ko abenduaren 12rarte aurkeztu ahal izango dira.

#### **8.- GIZARTERATZEKO ERA**

- Prentsa: Berria, Deia, Hitza, Gara
- Iragarki tabloia
- Langai/Behargintza-Lanbide ekimenak
- Web orriari sartu
- Urremendiko komunikazio zerbitzua

#### **9.- OHARRAK**

- Kultur etxeari buruzko informazioa eskatu ahal izango da Udaletxean.

Aurkeztutako deialdia kontutan hartuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen du.

#### **6.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN I. FASEKO 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 163.203,16 euroko kostuarekin.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, 82.930,07 euroko lanen 1. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 82.930,07 euroko kostu orokorrekina aurkeztutako A08-181 faktura eranstean zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko lehen ziurtagiria onartzea, 82.930,07 euroko kostu orokorrekina.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 82.930,07 euroko kopuru orokorra duen A08-181 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezela eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.



Ajangizko Udala

**7.- MENTZETA AUZORA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN II. FASEKO 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. Faseko lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 117.120,00 euroko kostuarekin.

Lanen zuzendaria den Igor Madariaga ingeniariak, 29.821,89 euroko lanen 1. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 29.821,89 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako A08-182 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko lanen II. faseko lehen ziurtagiria onartzea, 29.821,89 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 29.821,89 euroko kopuru orokorra duen A08-182 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

**8.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 3/2008 ESPEDIENTEA ONARTZEA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2008 aurrekontua aldatu beharra ikusi du, irisgarritasuna bermatzeko lanek sortutako kostuei aurre egiteko; hori dela eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

<b>GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR</b>	<b>KOPURUA CUANTIA</b>
432.60102	13.964,50 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>13.964,50 €</b>

<b>GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR</b>	<b>KOPURUA CUANTIA</b>
Remanente líquido de tesorería	13.964,50 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>13.964,50 €</b>



*Ajangizko Udala*

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

**Lehenengo.-** Kreditu gehiketaz egindako 3/2008 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

**Bigarren.-** Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

**Hirugarren.-** Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

**Laugarren.-** Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

## **9.- "SALBUESPEN EGOERARI STOP! EUSKAL HERRIAK AUTODETERMINAZIOA" MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Angel Luis Uribarri eta Beñar Erezuma zinegotzi jaunek mozioaren irakurketari ekiten diote:

AuzitegiGorenako 61, Salak EAE-ANV eta EHAK legez kanpo utzi ditu. Ilegalizaio hauei gehitu beharo diohu Amnistiaren aldeko mugimenduko 21 kideren aurkako espetxe zigorrak eta Askatasunaren legez kanporatzea eta, oro har: azken asteetan eman diren tortura kasu lazgarriak, atxiloketa eta espetxeratze arbitrarioak, bahiketak, manifestazio debekuak, udaletxez udaletxe eta erakundeetan eramaten den apartheid-a eta abar. Hau da salbuespen egoera gogorra bizi du Euskal Herriak, gure herrian ez dago demokraziarik.

Euskal Herriak demokrazia falta du. Espainiar estatuan frankismoak bizi-bizirik jarraitzen du, orain dela 30 urte ez zen frankismoarekin bukatu, ez zen benetako trantsiziorik izan. Espainian, erregimen frankistaren oinordekoek, epaitegiek, epaileek, komunikabideek, politikoez agintzen dute oraindik ere, eta PSOEek ez du inolako eskrupulorik eta lotsarik frankistekin lerrokatzeko, frankismoaren kontra borrokatu zutenak espetxera bidaltzeko, gure herrian salbuespen egoera ezartzeko, Espainiako kartzelak independentistentzat kontzentrazio eremu bilakatzeko. Hori guztia helburu jakin batekin: ezker independentismoarekin, eta oro har, Euskal Herriaren askatsun nahiarekin behin betikoz amaitzeko.

Euskal Herrian aldaketa politikorako aukera zabalik dago eta PSOEek, salbuespen egoera basatiena ezarriz, autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarritutako aldaketa politikoa galerazi eta gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa kostatzen du.



## *Ajangizko Udala*

ahala kosta iraunarazi nahi du, duela 30 urte egin bezalaxe, indarrez iraunarazi ere. Horretarako aldaketa horren motorra den ezker abertzalea txikituz eta Euskal Herriaren eskubideen aldeko jarduera oro jazarriz.

Badaramatzagu 30 urte marko konstituzional-autonomiko honen barruan eta inoz baino ageriagoa da marko horrek, Euskal Herriaren herri eskubideak ahalbideratzetik urrun, horien ukazioa iraunarazteko bitartekoa dela eta hartara, marko horrek ez duela inolaz ere gatazka politikoaren gainditzea ahalbideratuko.

Euskal Herriak demokrazia, askatasuna behar du. Euskal Herritarrok gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea eta ahalmena behar dugu. Eta horretarako, ezinbestekoa da Espainia eta Frantziako konstituzioen harresia kendu, gaur egungo esparru konstituzional-autonomikoa gainditu eta marko demokratiko bat lortzea, Euskal Herria nazio gisa aitortuko duena eta euskal herritarrek proiektu politiko guztien artean, independetziarena barne, erabaki ahal izan dezaten ahalbideratuko duena.

### Ebazpenak:

.- Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen du.

.- Udal honek ilegalizazio estrategia euskal herritarren nahiz Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza dela adierazten du.

.- Udal honek alderdi politikoaren ilegalizazio estrategia normaltasun politikorik urrundu eta gatazka politikoa elikatzen duela adierazten du.

.- Udal orok herritarren borondatea behar du oinarri. Hortaz, udal honek, herritarren borondatearen aurkako lege, epai edota erabakiei ez die inplako zilegitasunik aitortzen.

.- Udal honek herritarrek aukeraturiko ezker abertzalearen zinegotziak eta parlamentariak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu. Beraien parte-hartzea bermatuz.

.- Udal honek euskal jendarteak nahi eta eskatzen duen aldaketa politikoa, Euskal Herriaren autodeterminazio eta lurraldetasun eskubideetan oinarrituko den aldaketa, gauza dadin bere ekarpena egiteko prest dagoela adierazi nahi du.

.- Udal honek, alderdi interesen ginetik, zazpi herrialdeetako euskal herritarrok Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubidea ahalbideratuko duen marko demokratikoaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen du.

.- Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakineraziko jake.



## *Ajangizko Udala*

Mozioa irakurrita, EAJ-PNVko ordezkari den Roman Etxeandiak, bere taldearen erantzuna irakurtzeari ekiten dio:

Euzko Alderdi Jeltzalek askotan agertu dau Alderdi Politikoen Legearen kontrako iritzia, hedabideetan, erakundeetan eta Eusko Legebiltzarrean bertan be. EAJ-PNVk kontrato botoa emon eban Legea bideratu zanean. Legea onartu ebenean, EAJ-PNVk errekurtsioa aurkezteko ekimena bideratu eban Eusko Legebiltzarrean, baina ezker abertzale erradikalaren ordezkariak ez eben begi onez jo eta kontrako botoa eman eben. Hori dala eta, ez genduan Alderdi Politikoen Legearen kontrako errekurtsioa aurkezterik izan.

Gaur egungo egoera, besteak beste, ezker abertzale erradikalaren jokabidearen ondorioa be badala esan ahal dogu. "Dana" nahi lortu gura, eta lortzen ez daben ezker, euren urtenbide bakarra "ezerez"ean geratzea da. Jokabide horren ondorioz, hemen gagoz Alderdi Politikoen Legearen ondorioak bete beharrean.

Dana dala, uste dogu badagoala EAE-ANVren presentzia eta partehartzea udaletan ziurtatzeko modurik: euren aldea utzi eta inongo talderi atxiki gabeko zinegotzi modura jarraituz.

Esandako guztia kontuan, EAJ-PNVk ezetz esango deutso mozio honeri.

Adierazitako guztia kontutan hartuta, Salbuespen egoerari stop! mozioa botaziora aurkeztuta, honako emaitza jasotzen du:

Aldeko botuak: lau, Koldo Carbonell Oihartzabal, Angel Luis Uribarri Gondra, Maria Angeles Goikolea Uriarte eta Beñat Erezuma Arisketa zientzietan.

Kontakoak: bi, EAJ-PNVko ordezkariak

Abstentzioak: ez daude.

Jasotako emaitzak kontutan hartuta, mozioa onartutzat ematen da, botuen gehiengoz.

Roman Etxeandia jaunak berak irakurritakoari zer iritzi dioten galdetzen du. Koldo Carbonell jaunak denon arteko adostasuna nola lortzean dagoela gako dio, bidea adostasunarekin egin ahal izateko. Beñat Erezumak, gaur egun PNVk ere arazoa baduela aipatzen du, kontsultari ezetza eman baitio PSOEk. Horren aurrean zerbait egin behar dela uste du berak.

Bere ustez zer egin behar den galdetzen dio Etxeandia jaunak. Zer ez daki baina zerbait egin beharko dela erantzuten dio Erezuma jaunak. Harraro deritza ezetza eman dion partiduari aurrekontuetan aldeko botua ematea.

Etxeandia jaunak gauza desberdinak direla aipatzen du, kontsultari ezetza esan arren, beste arlo batzuetan aurrera egin beharra dagoela eta horri esker kompetentzia gehiago lortu direla Euskadirentzat.



## *Ajangizko Udala*

Erezuma jaunaren ustetan merkeegia da ordaindutako prezioa, abiadura horretan hogeita hamar urte dela lortuta beharko lukeen konpententziak lortzeko ehun eta berrogeita hamar urte igaro beharko bait lukete. Lortutako konpententziaren prezioa Bilboko Udalak garbitasunean gastetzen duena omen da.

Etxeandia jaunak konpententzia hori garrantzi handikoa dela dio, pausuz pausu herriaren hobekuntza lortu beharra dagoela. Bidea zein den galdetzen dio, bonbekin arazoa konponduko ote den, Ondarrun gertatu bezala.

Bonbekin ez, lapurrekin bidea egitea baldin bada dio Erezuma jaunak.

Zein lapurri buruz ari den galdetzean Erezuma jaunak, Udaletxe honetan azken lau urtetan egon direnak adierazten du, hemen bakarrik ez eta beste Udaletxe batzuetan ere daudenak .

Etxenadia jaunak aipamen hori aktan jartzea nahi duela aipatzen du.

Alkateak eztabaida eten eta gai zerrendakin jarraitzeko agindua ematen du.

### **10.- ERREGU ETA GALDERAK.-**

- Landabideei dagokionez, Maier-Mendieta landabidean zementozko badenak jarriko direla azaltzen du Alkateak. Baden hauek ez dira proiektuan agertzen, proiektuan jarritakoak gomazkoak baitziren. Horrez gain proiektuan aurreikusirik gabe zegoen barandila bat ere jarriko da zubi parean; gaur egun dagoen zementozkoa kendu, kurba apur bat zabaldu eta barandila berria jarri. Aldaketa horiek aurrekontuan eragina izango dute.

- Alkateak, Elizako eraikuntzaren egoeraren berri emanez Bilboko Gotzaindegia bidali zaion eskutitzaren berri ematen du. Udal arkitektoak eraikuntzaren egoerari buruzko txosten bat egin zuen argazki erreportaje batekin. Hori da hain zuzen ere Gotzaindegira bidali dena, beraiekin batzar bat eskatuz eta Udalaren laguntza eskainiz. Oraindik ez da erantzunik jaso.

- Alkate Udalburuak, Mendieta auzoan rotonda eraikitzeko proiektuari buruz, datorren asteartean Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartuko omen du Ajangizko Udala, Bizkailur eta Aldundiaren arteko hitzarmena. Onarpena lortzerakoan hitzarmena sinatzeko deituko omen dute.

- Ajangizko Hirigintza Planari dagokionez, Alkateak erredakzio ekipoa kontratatzeko pleguaren zirriborro bat banatu du. Zirriborro hori aztertu eta hurrengo pleno baten aurkezteko asmoa daukala aipatzen du, datorren urtean arauen errebisioa martxan jartzeko.

Etxeandia jaunak normak egiterakoan auzoz-auzo eritzia galdetu beharko litzatekela aipatzen du auzo bakoitzeko beharrianak jakin ahal izateko. Horrez gain, gaur egun etxebizitza egiteko lizentzia dutenei ere, lizentzia hori gauzatzeko epe bat eman beharko litzatekela dio, eraiki ezean beste batzuek aukera izan dezaten.



*Ajangizko Udala*

Angel Luis Uribarri jaunak asmoa hirigintza batzorde bat osatzea dela dio, herritarrekin kontaktatu.. baina horretarako proposamen batekin aurkeztu behar du Udalak.

- Mendieta auzoan frontoia eraikitzeo proiektuari dagokionez, Alkateak hiru arkitektoekin harremanetan jarri dela aipatzen du. Arkitekto hauek frontoiak egiten esperientzia dutenak dira, bata Adunakoa, bestea Zornotza eta Ereñokoa eta hirugarrenak bestea Careaga eta Omaetxebarria. Hirurei frontoi multusos bat eraikitzeo azterketa egitea eskatu zaie, beti ere estetika kontutan hartuta eta ingurumenarekin bat datorren eraikuntza bat diseinatzeko. Euren proposamenak aurkeztuko dituzte, proiektuaren aurrekontuarekin eta eraikuntzaren aurrekontuarekin. Datu horiek jasotzean atertuko dira.

- Azkenik Udala postontziak jartzeko proiektua aztertzen ere badabilela aipatzen du Alkateak. Zein tokitan kokatu... Korreosek bide ondoan kokatzeko eskatzen du, eta horretarako auzo edo gun e bakoitzeko tokirik egokienak bilatu behar dira, lurren jabeekin hitzegin...

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko hamarrak laurden gutxi direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**

**BITARTEKO IDAZKARIA**